

# arkeo ikuska 97

ARKEOLOGI IKERKETA

INVESTIGACION ARQUEOLOGICA



Edición:
Centro de Patrimonio Cultural Vasco.
Dirección de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco. 1998.

Coordinación: Inmaculada Goikoetxea Okaranza.

Arkeoikuska es una publicación del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Recoge las actividades arqueológicas autorizadas por las correspondientes Diputaciones y llevadas a cabo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Portada: Sormen Creativos, S.A.

Plano y fotografías del Plan Director para la restauración de la Catedral de Santa María (Vitoria-Gasteiz).

Traducción: LUMA, C.B.

© Esquema pág. 301: Pujana y Valdés.

Textos, Fotografías e Ilustraciones: directores de las excavaciones y de los trabajos referidos.

Solicitudes, Intercambio e Información:
Centro de Patrimonio Cultural Vasco.
Duque de Wellington, 2.
01010 Vitoria-Gasteiz.

I.S.S.N.: 0213-8921.
D.L: BI-1.628-96

Argitalpena:
Euskal Kultur Ondarearen Zentrua.
Kultur Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. 1998.

Koordinaketa: Inmaculada Goikoetxea Okaranza

Arkeoikuska Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren argitalpena da.

Lurraldean lurraldeko Foru Aldundiak baimena eman ondoren Euskal Autonomía Elkartean burututako jarduera arkeologikoak biltzen ditu.

Azala: Sormen Creativos, S.A.

Gasteizko Santa María katedralaren eraberrikuntzarako Plan Zuzentzailearen planoa eta argazkiak.

Itzulpena: LUMA, O.E.

© 301 orrialdetako eskema: Pujana y Valdés.

Textua, Argazkiak eta Irudiak: Aipatutako lanen eta aztarnategien zuzendariak.

Eskaerak, Trukaketak eta Argipideak:
Euskal Kultur Ondarearen Zentrua.
Wellingtongo kalea, 2.
01010 Vitoria-Gasteiz.

I.S.S.N.: 0213-8921.
L.G.: BI-1.628-96

# AURKIBIDEA


**AURKEZPENA** ........ 11

**A. HIRIGINTZA PLANEN ERREDAKZIOARI BEGIRA EGINIKO HISTORIA-ARKEOLOGIA AZTERKETAK...** **15**

- **A.1. ARABA** ........ 17
  - A.1.1. Alegria-Dulantziko Hirigune Historikoaren Historia-Arkeologia Azterketa ........ 17
  - A.1.2. Labastidako Hirigunea Historikoaren Historia-Arkeologia Azterketa ........ 25
  - A.1.3. Santa Maria Katedraleko Plan Nagusia (Vitoria-Gasteiz) ........ 33
  - A.1.4. Arkaiako aztamategi erromatarraren azterketa (Vitoria-Gasteiz) ........ 42

A.2. **BIZKAIA** ........ 47
- A.2.1. Balmasedako Gazteluko Kultura Parkerako Plan Bereziaren Aurreproiektua ........ 47

A.3. **GIPUZKOA** ........ 61
- A.3.1. Segurako Hirigune Historikoaren Historia-Arkeologia Azterketa ........ 61

**B. IKERKETA PROGRAMAK. LANDA-LANAK** ........ 73

B.1. **ARABA** ........ 75
- B.1.1. *INDUSKETAK* ........ 75
  - B.1.1.1. Atxosteko aztarnategia (Birgala Nagusia, Arraia-Maeztu) ........ 75
  - B.1.1.2. Karastako aztarnategia (Kaizedo Goikoa, Ribera Alta) ........ 84
  - B.1.1.3. Lastrako kastroak (Karanka, Valdegovfa) ........ 90
  - B.1.1.4. Arrillorko lezea (Murua, Zigoitia) ........ 95
- B.1.2. *ZUNDAKETAK* ........ 103
  - B. 1.2.1. Ameztutxoko bizileku aztarnategia (llarduia, Asparrena) ........ 103
  - B.1.2.2. Eskideko herri hustuko aztarnategia (Yecora) ........ 108
- B.1.3. *MIAKETAK* ........ 112
  - B. 1.3.1. Araia ibaiaren arroa ........ 112
  - B.1.3.2. Kantabriako Mendikatearen hegoaldea ........ 113

B.2. **BIZKAIA** ........ 119
- B.2.1. *INDUSKETAK* ........ 119
  - B.2.1.1. Gastiburuko Santutegi Protohistorikoa (Arratzu) ........ 119
  - B.2.1.2. Pareko Landako haize zabaleko aztarnategia (Busturia-Bermeo) ........ 122
  - B.2.1.3. Antoliñako Koba (Gautegiz Arteaga) ........ 124
  - B.2.1.4. Kobaederra lezea (Oma, Kortezubi) ........ 130
  - B.2.1.5. Santa Katalina lezea (Lekeitio) ........ 133
  - B.2.1.6. Aloriako aztarnategia (Orduña/Arrastaria) ........ 135

# A.2. BIZKAIA / BIZKAIA

## A.2.1. Balmasedako Gazteluko eremuaren Historia-Arkeologia Azterketa

Zuzendariak: Iñaki Garcia Camino, Juan Manuel Gonzalez Cembellin eta Maria Jose Torrecilla Gorbea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Balmasedako Udalak finantzatua

## A.2.1. Estudio Histórico-Arqueológico de la zona de "El Castillo" de Balmaseda.

Dirigido por Iñaki García Camino, Juan Manuel González Cembellín y M[a] José Torrecilla Gorbea.

Financiado por el Departamento de Cultura. Gobierno Vasco; Ayuntamiento de Balmaseda

*With the aim of updating two pieces of legislation, the Basque Cultural Heritage Law and the Land Use Law, both of which affect urban development and planning, including this area occupied by the medieval castle in Balmaseda and the old town walls, a study of both was carried out. With data collected through various means (archaeological surveys, stratigraphic analyses of structures, investigation of archives), a basic project for a heritage park was drawn up as outlined in this article. The undertaking of this project, on the one hand, involved a review of conserved remains and, on the other, made possible the rehabilitation of this marginalised urban zone, close to an inhabited nucleus.*

### /. *Aldez aurrekoak: Azterketaren arrazoiak eta helburuak:*

Zera izan da lan honen helburua, Balmasedako Gazteluko (El Castillo) muinoko kultura-balioen gaineko diagnostikoa egitea, hiri ordenaziorako udal arauen dokumentuetan aurreikusiriko parkerako proiektua gidatuko duten jardueren abiapuntua izan dadin. Xede honetan bideraturiko azterketak egokitu behar izan ditu azterturiko espazioan eragina duten bi plangintza-irudi, kontuan harturik, kontrakarrean ez bazetozen ere, haien jarduerak arazoak ekar zitzakeela oso zehaztasun-maila apalekoak baitziren:

- Alde batetik, Udalak aisiarako zoru urbanizaezintzat hartu zuen eremua.

### /. *Preliminares: Justificación y objetivos del estudio:*

El objeto del trabajo ha consistido en efectuar el diagnóstico de los valores culturales del cerro de El Castillo de Balmaseda como punto de partida de futuras actuaciones que guíen el proyecto de instalación de un parque contemplado en los documentos de las normas subsidiarias de planeamiento municipal. El análisis así efectuado ha estado impulsado por la necesidad de adecuar dos figuras de planeamiento que inciden sobre el espacio estudiado y que, pese a que no son contradictorias, su puesta en práctica podría presentar problemas derivados de la escasa precisión de ambas:

- Por un lado, el Ayuntamiento calificó el área como suelo no urbanizable destinado a zona de recreo y expansión.

- Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Autonomia Erkidegoko Kultura Ondasunen zerrendan inskribatu zuen Gazteluaren eta Hiriaren arteko esparrua, arkeologia-eremua zela zehaztuz.

Kasu bi horietan ez dira babes-erregimenak zehaztu, lehenean espazio gaurko egunean erdi hiritar hori parke bihurtzea proposatzen bazen ere, bigarrenean interbentzio arkeologikoa baizik ez zen xedatzen, eremuan etorkizunean bideratuko ziren zoru-erabilerak zehaztu aurretik eta Foru Aldundiaren Kultura Sailaren baimena jaso ondoren. Honen ondorioz, historia edo hirigintzaren ikuspegitik ez zegoen etorkizunerako proiekzio garbirik eskaintzen zuen plangintza homogeneo argirik.

Halatan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak udalerrietako hihgintza-plangintzak kultura balioen arabera zehaztu, berrikusi eta, hala behar izanez gero, aldatzeko bideratu duen laguntza-programara jo zuen Udalak.

## II. Interbentzio arkeologikoa eta landa-lana:

Balmasedako Gazteluko muinoko eremu arkeologikoko interbentzioa Parke Arkeologikoaren Aurreproiektuaren lehen azterketarako oinarri eta dokumentazio gisa diseinatu zen. Haren arabera, bi zundaketa egin ziren eta hautemaniko egitura eraikien estratigrafia zehaztu zen. Lorturiko emaitzei esker, zehaztasun handiagoz mugatu ahal izan da etorkizuneko parkea, azaleraturiko unitateen kultura adskripzioaren eta kronologiaren arabera, ebaluatu egin da sektore desberdinen balio arkeologikoa eta zehaztu egin dira, era berean, etorkizunean eragingo dituzten zortasunak.

### *Azterlanaren faseak*

I. Fasea: Eremuaren mugak zehaztea eta jarduerarako estrategiaren diseinua

Agerian zeuden hondakinen lehen ebaluazioa egin zen, eremuak bereizi eta multzo osoak aurkezten zituen arazoak zehazteko. Lehen azterlan honen ondoren, eremu batzuk utzi genituen azterlanetik kanpo (esparruaren medebaldeko lursaila txakolin-mahastiak dauden terrazak eta maldak eta lubizi garrantzitsuak suma zitezkeen barnealdeko lursail batzuk).

Azaletik bada ere, honela muga genitzake bereizitako sektoreak:

I. Sektorea - goialdeko esparru gotortua; nabarmenkiro estali dute bazterretako landaretzak eta ortu txiki batek.

II. Sektorea - harresiaren kanpoaldeko bazterrak eta behealdeko terrazaldea, aurrekoarekin hertsiki lotua; landaretzak ez du hainbeste estali, baina kalitate eskaseko itxitura ugari dago alde hartan, larrealdeak mugatzeko.

III. Sektorea - konplexuena eta, aldi berean, zabalena. Harresiaren barneko espazio guztia hartzen du,

- Por otro, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco procedió a inscribir en el inventario de Bienes Culturales de la Comunidad Autónoma el espacio que ocupa el Castillo y la Villa, con la denominación de Zona arqueológica.

En ninguno de los dos casos se especifican los regímenes de protección ya que en el primero se propone la reconversión de este espacio -en la actualidad-suburbano en parque y en el segundo los usos del suelo se limitan a la intervención arqueológica previa a la modificación del estado actual del área, debidamente autorizada por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral. En consecuencia ni desde el punto de vista histórico ni desde el urbanístico existe un planeamiento homogéneo y claro con proyección de futuro.

Por ello el Ayuntamiento se acogió al programa de ayudas del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, destinado a elaborar, revisar y, en su caso, modificar los instrumentos de planificación urbanística en función de los valores culturales que encierran los municipios.

## II. Intervención arqueológica y trabajo de campo:

La intervención en la zona Arqueológica del cerro de "El Castillo" de Balmaseda, se diseñó como apoyo y documentación del estudio Anteproyecto de Parque Arqueológico, y ha consistido en la realización de dos sondeos y la lectura de estratigrafía emergente de las estructuras localizadas. Sus resultados han permitido delimitar con mayor precisión el futuro parque en función de la adscripción cultural y cronológica otorgada a las unidades exhumadas, evaluar el potencial arqueológico de los diferentes sectores y definir la servidumbre que en este aspecto soportarán en el futuro.

### *Fases de desarrollo del estudio*

Fase I: Delimitación del área y diseño de la estrategia de actuación

Consistió en la evaluación preliminar de los restos observables, distinción de áreas e identificación de problemática general del conjunto. Con este instrumento y estudio preliminar se descartaron ya algunas zonas (como la parcela situada al Oeste del recinto -terrazas y bancales de cultivo chacolinero- y otras interiores en las que se apreciaban corrimientos de tierra importantes).

Los sectores de interpretación delimitados podrían definirse someramente como:

Sector I - recinto superior fortificado; notablemente enmascarado por la vegetación en sus márgenes y con la presencia de una pequeña huerta.

Sector II - alineación y aterrazamiento inferior, que parecía mantener estrecha relación con el anterior, algo más despejado de elementos vegetales pero con profusión de cierres de escasa calidad delimitando zonas de aprovechamiento para pastos.

Sector III - es el más complejo y el de mayor extensión. Afecta a todo el espacio intramuros, com-

harresiaren lerrokaduren eta haien fabriken artean. Zuhaitzaldea da nagusiki eta alde soil gutxi du.

IV. eta V. Sektoreak - Ekialde eta iparraldeko mazelak dira hurrenez hurren eta uren banalerroak bereizten ditu. Lehen miaketa baten ondoren, ez zen emaitza onik espero, mahastiak daudelako lehenean eta patar handi samarrak bigarrenean.

prendido entre las posibles alineaciones de muralla y la propia fábrica de éstas, de aprovechamiento fundamentalmente forestal y escasas zonas despejadas.

Sectores IV y V- corresponden respectivamente a las laderas de Poniente y Septentrión, diferenciadas por la línea divisoria de aguas, en las que la exploración preliminar no auguraba resultados de interés. En el primero de ellos, por lo que queda dicho en relación con su aprovechamiento para viñedos, y en el segundo por su naturaleza topográfica de fuertes pendientes.

II. Fasea: Landaretzaren eta lur jotako aldeen garbiketa.

Garbitu egin ziren landare-elementuak eta hondakinak, aurreko fasean interesgarritzat harturiko egituretan, eta lau langilek lagundu ziguten lan hartan hiru astez. I. sektorean hasi eta eraikuntza-elementuen lerroak agerian utzi ziren eta, zoru barnean sakondu eta gero, ustezko harresi-atal batzuk azaldu ziren bi aldeetan, hirigunearen barnean sartzen zirenak.

Fase II: Limpieza de la vegetación y de los derrumbes.

Eliminación de elementos vegetales y desescombro superficial de las estructuras calificadas de Interés en la fase anterior, desarrollada con la colaboración de cuatro peones durante tres semanas. A partir del sector I, se limpiaron las líneas de construcción emergentes y se procedió a un progresivo descenso, descubriendo los posibles lienzos de muralla en los dos flancos, hasta alcanzar el propio casco urbano.

III. Fasea: Zundaketa arkeologikoak.

Interbentzio arkeologikoari berari dagokionez, garbi esan dezagun zundaketen helburua I. sektoreko edo goialdeko esparru gotortuko bi guneren estratigrafia eta ezaugarriak ebaluatzea izan dela, beste bide batzuen bitartez bilduriko dokumentazioa osatu ahal izateko. Horrenbestez, zundaketa hauek ez dira soil-soilik

Fase III: Sondeos arqueológicos.

En lo que se refiere a la intervención arqueológica propiamente dicha, conviene precisar que el objeto de los sondeos ha sido evaluar el potencial estratigráfico y sus características en dos puntos concretos del recinto superior fortificado o Sector I y venían a complementar la documentación reunida por otros métodos.



Gazteluko eremua (El Castillo, Balmaseda). Erdi Aroko harresiaren ikuspegia.

Zona de "El Castillo" (Balmaseda). Detalle de la muralla medieval.

proiektu arkeologiko bati jarraiki, azterketa orokorrerako tresna gisa erabili diren neurrian.

II. Fasean lorturiko emaitzak egokiro ebaluatzearren, esan dezagun zundaketak goialdeko esparruan egin zirela, egiturak ulertzeko arazoak handiagoak ziren gunean alegia. Izan ere, esparru horren terraza-izaerak metatze estratigrafiko handiago bat iragartzen zuen, eta garrantzi handia zuen izaera hori behar bezala ebaluatzeak etorkizuneko jarduerei begira.

Bi zundaketa txiki (52 $m^2$ hartu zituzten guztira) proiektatu genituen horretarako. A eta B deitu genien eta honako helburu hauek izan zituzten: paramentuak bereiztea, haien arteko erlazio fisikoak zehaztea, haien osaera eta kronologia erlatiboari buruzko datuak jasotzea, eta multzo haren sedimentuen lodiera neurtzea.

IV. Fasea. Egitura eraikien eta zundaketetan azaleratu eta zehaztu diren unitateen interpretazio estratigrafikoa.

IV. fasean bereziki ahalegindu ginen landa-lana eta haren garapena definituko zuten material grafikoen prestaera konbinatzen. Multzoaren plano nagusia egin genuen eta hartan bereziki islatu genituen babsen lerrokadurak eta interpretazio estratigrafikoetan oinarria eman diguten xehetasun guztiak. Honez gainera, bideo-filmez eta diapositibez eta, jakina, erregistro eta azterketa arkeologikoaren ondoko fitxez osatu genuen dokumentazioa.

*Interpretazio estratigrafikoa.*

Hona hemen, labur-labur, egin genitzakeen kontsiderazio nagusiak:

Lehenik, Erdi Aroko harresiaren (1. murrua izendatua) ezaugarriak zehaztu dira. Hauek dira eremuko eraikin-hondakin zaharrenak. Sestra-kurben perpendikularrean garatu zen, zeharka eta muinoaren gaineraino helduz. Paraleloan luzaturiko bi horma-atalek eratzen dute murrua eta hartxabal estuak eta harkoskoak daude bi hormen artean. Kalitate eta sendotasun eskaseko kareorea erabili zen harri hoiek guztiak trinkotzeko. Kanpoaldeko atalak hobekiago landu ziren, ilada erregular homogenoetan. Goratasunean, txandaka agertzen dira harlandu-ilara batzuk topografiaren gorabeherak egokiro gainditzearren. Tarte batzuetan, itxuraz halako egitura erregularrik agertzen ez bada ere, zeharka ezarri zituzten harri batzuk egitura sendotzeko. Bi gunetan, oinarri erdizirkular batean metaturiko harriak azaldu dira, eta babeserako kubo batzuei zegozkiela uste dugu. Haien kontserbazio-egoera irregularra da: 2,50 metroko garaiera dute batzuetan, baina harri gabe edo zimentu mailan ageri dira beste batzuetan.

Bigarrenik, lerrokadura bikoitza agertu da bi zundaketetan: lodiera handikoa da murru horietako bat, kanpoaldean ezponda handi bat eratzen duena (A murrua), eta txikiagoa da bestea, barnera begira eta askoz ere eskasago kontserbatua, harri naturalean

Por lo tanto, no responden única y exclusivamente a un proyecto arqueológico sino que se realizaron como instrumento de apoyo al estudio general.

Evaluando los resultados obtenidos en la Fase II, los sondeos se centraron en el recinto superior, donde existían mayores problemas en la comprensión de estructuras y donde sus condiciones de aterrazamiento hacían suponer una acumulación estratigráfica de mayor potencia, extremo éste que nos era importante evaluar para futuras actuaciones.

Proyectamos para ello dos sondeos, denominados A y B, de escasas dimensiones (en total cubren un total de 52 $m.^2$), con objeto de individualizar los paramentos, establecer sus relaciones físicas, obtener datos tanto de su composición como de su cronología relativa y comprobar la potencia sedimentaria del conjunto.

Fase IV Interpretación estratigráfica de estructuras emergentes y unidades exhumadas y definidas en los sondeos.

La fase IV ha centrado sus esfuerzos en combinar el trabajo de campo con la obtención de materiales gráficos que definan su desarrollo, levantando el plano general del conjunto que refleja, especialmente, tanto las alineaciones de defensa identificadas como los detalles que han servido de base a las interpretaciones estratigráficas. La documentación se completó además con tomas videográficas y diapositivas, y por supuesto con las fichas de registro y análisis arqueológico.

*Interpretación estratigráfica.*

Brevemente, las consideraciones generales que podríamos extraer son:

En primer lugar, se han definido las características de la muralla medieval (denominada muro n° 1), los restos constructivos más antiguos del área. Se desarrolla en sentido perpendicular a las curvas de nivel, cortándolas y alcanzando la cima de la colina. Resulta ser un muro constituido por dos lienzos paralelos cuyo interior se rellena con lajas estrechas y cascotes, todo ello trabado con argamasa de escasa calidad y consistencia. Los paños externos, de mejor acabado, organizan el aparejo en hiladas regulares y homogeneizadas. En altura se insertan hiladas alternantes de bloques trabajados para corregir las irregularidades de la topografía. En determinados tramos, sin que aparentemente exista regularidad alguna, se colocaron piedras a tizón al objeto de reforzar la estructura. También se han localizado en dos puntos sendas acumulaciones de piedras que adquieren forma semicircular, adosadas a la muralla por su interior, y que creemos corresponden a otros tantos cubos de defensa. Su estado de conservación es irregular: en ocasiones alcanza casi los 2,50 m, mientras en otras se encuentra descarnada o sólo presenta el nivel de cimiento.

En segundo lugar, en ambos sondeos se ha localizado una doble alineación: un muro de gran espesor y pronunciado talud externo (muro A) y otro menor, de escaso porte conservado, hacia el interior y afianzado en la roca (muro B), separados por un estrecho pasi-

bermatua (B murua). Pasabide estu bat igarotzen da haien artean. Haien atzealdean, bamealdean beti, lur zanpatu eta kareharri txikiz eraturiko zoru homogeneo bat ageri da, kota erregularrekoa eta berdindua. Gure ustez, elementu hauek kanpoaldeko babes batekin erlazionaturik daude eta halako erronda-bide edo parapetoa eratuko zuten fusilari edo kanoientzat. Zoruak, ordea, arma plazaren barnealdeko kota zehaztuko zuen eta soldado-taldeen atsedenlekua izango zen. Elementu eta diseinu hauek zuzenean eramaten gaituzte Lehen Gerra Karlistaren garaian atondu zen gotorleku modemora.

Honez gainera, harresigain eta goialdeko esparrua hainbatetan berregokitu zelako seinaleak ageri zaizkigu B zundaketan, kontuan harturik haren oinetan dagoen fosoa: zehazkiro, eratxikiriko terraza bat ageri da Iparraldeko muturrean, erdi eskegirik balkoi baten modura, eta beste egitura baten hondakinak azaldu dira beste aldean, lur joak guztiak ia-ia. Ezin izan ditugu oraingoz haren ezaugarriak zehaztu. Gainera, badirudi nolabaiteko bizilekua antolatu zela alde hartan, barnealdeko horma-atal batean azaldu den ore-estaldurak salatzen digun bezala.

A zundaketan, egitura hauen azpian, ageri da C Murrua, 2 metrotik gorako lodieraz, erregularra, eta kareorez ongi lotu diren kareharrizko piezak horizontalean. Gutxienez 35-40 cm-ko egitura kontserbatu da goratasunean. Aurreko eraikina zen hau eta eraitsi egin zuten gainekoa, arestian deskribatu duguna, eraikitzeko. Lortu dugun kronologia erlatiboari jarraiki, gotorlekuko aztarna zaharrena izan liteke.

Hirugarrenik, lubiziak agertu zaizkigu nabarmen eremuan, areago III. Sektoreko alde zabal batzuetan, haien ekialdean bereziki. Eremu honetan lorturiko emaitzak aztertu eta gero, alde batera utzi beharra dago haren interes arkeologikoa, ez baita haietan Erdi Aroko edo karlisten garaiko defentsa-egituren arrastorik ageri. Lurren itxiturak agertzen dira, material desberdinetan eginak.

Azkenik, interpretazio zailekoa da Udaletxearen atzealdeko aparkalekuaren ondoan goratzen den dorrea, kronologia desberdineko interbentzioak ageri baititu. Bereziki aipatuko genituzke haren barnealdeko diseinu zirkularra eta joan den mendeko harresigain edo gotorlekuaren egituren halako oihartzuna dakarkiguten eraikuntza-elementu berezi batzuk: kareharrizko hartxabalak, kareore zuriska batez lotuak.

## *III.- Interpretazio historikoa.*

Miaketa arkeologikoari eta artxiboen kontsultari esker lorturiko informazioaz baliaturik, gazteluaren bilakaera historikoari buruzko hipotesi bat proposatu du, lau fasetan banatua:

1.- Gazteluaren jatorria. Gaztelu honi historiografiak zenbaitetan egokitu dion jatorri erromatarrari buruz, garbi esan dezagun, interbentzio arkeologikoa barne, bideratu dugun ikerketak deus ere ez duela aurkitu hipotesi honen alde. Hiri-gutunean (1199) ez da gaztelua aipatzen eta ez zen seguruenik horrelakorik izango garai hartan. XIII. mende erditsuan, Gaztelako erregeen

lio. A sus espaldas, y en el lado interior, se dispone un suelo homogéneo de tierra apisonada y pequeñas piedras calizas, de cota regular y horizontalizada. Creemos que estos elementos pueden estar en relación a la creación de una defensa exterior, con pasillo de ronda o parapeto para fusileros y cañones, mientras el suelo señalaría la cota interior de la plaza de armas o desahogo de la guarnición, elementos y diseño que lo ponen en relación directa con el "fuerte a la moderna" construido en el transcurso de la Primera Guerra Carlista.

Además, el sondeo B, ha revelado la presencia de una serie de readecuaciones de este adarve y recinto superior, respecto al foso que discurre a sus pies: en concreto un aterrazamiento adosado, semicolgado y a modo de balcón adelantado en el extremo Norte, y restos de un estructura en el ángulo opuesto, casi totalmente arruinada, cuyas características no han podido precisarse. Además, al parecer, en esta zona se ubicó algún tipo de habitación, a juzgar por el revestimiento de mortero observado en una de las caras internas.

Bajo estas estructuras, y en el sondeo A, aparece el Muro C, de grosor superior a los 2 m, con piezas de caliza de disposición horizontal, regular, bien trabadas con argamasa, del que al menos se conserva un alzado entre los 35 y 40 cm; construcción preexistente que fue arrasada para construir la que describimos más arriba. A tenor de la cronología relativa obtenida, creemos puede tratarse de la evidencia más antigua del recinto fortificado.

En tercer lugar, se han detectado notables corrimientos de tierra, aún visibles en amplias zonas del Sector III especialmente en el lado oriental. El análisis de los resultados en esa zona permiten descartar un interés arqueológico relevante, ya que no guardan relación con las estructuras defensivas, tanto medievales como carlistas, correspondiendo a cierres de propiedades, en los que se combinan materiales diversos.

Por último, el remozado "torreón", ubicado junto al parking trasero del ayuntamiento, resulta de difícil interpretación, combinando intervenciones de diferente cronología. Fundamentalmente destacaríamos su diseño circular interno y ciertas reminiscencias constructivas - empleo de lajas de caliza, trabazón con abundante argamasa blanquecina-, que permiten emparentarlo indirectamente con las estructuras del adarve o recinto fortificado superior del pasado siglo.

## *III.- Interpretación histórica.*

La información recuperada recurriendo a la prospección arqueológica y archivística, ha permitido plantear una hipótesis sobre la evolución histórica del castillo, articulada en cuatro fases:

1.° Origen del castillo. Acerca del origen romano que en ocasiones ha atribuido la historiografía a este enclave, el estudio que hemos desarrollado y la intervención arqueológica nada han podido probar que apoye esta suposición. En la carta puebla (1199) no se menciona el castillo, por lo que lo más probable es que aún no existiese y será en la segunda mitad del si-

eta Bizkaiko jaunen arteko gatazken garaian (1254-1288), eraikiko zuten gaztelua. Nolanahi ere, 1295ean eraikia zen gotorlekua. Gazteluari egokitu diogun data berant hori egokiago ulertzearren, kontuan har dezagun egun askotan aintzat hartzen ez den datu bat: XII. mendera arte, Balmaseda ez zen muga-hiria izan. Gaztelako edo Nafarroako erresumen tenentzia batzuen menpean egona zen lehenago, sekula ere ez ordea bi erresuma horien arteko mugan. Izan ere, gerokoan Bizkaiko Jaurerria Gaztelako erresumaren barnean bete-betean egon zenean, gazteluak ez zuen inolako funtziorik bete, gerra karlisten garaian gotorlekua berrerabili zen arte.

2.- Erdi Aroko gaztelua. Hiriko elementu batek zehaztu du haren kokalekua. Lehengo Kale Zaharretik *(Calle Vieja,* Martin Mendia kalea gaurko egunean) zabaldu zen hirigunea, Ipar-mendebalderantz, mazelaren gerizpea bilatuz, eta paraleloan luzatu ziren beste kale batzuen bitartez. Bi helburu nagusi izango zituen, beraz, esparru honetako babes-egiturak: zabaltzen ari zen hirigune guztia inguratu eta haren bizkarraldea muinotik babestu; hau da, baldintza horien arabera ezinbestekoa zen harresi bat luzatzea eta gaztelu bat eraikitzea, kanpoaldeko lerroaren erpinean. Dokumentu mailako erreferentziak laburrak dira, eta ez oso zehatzak, baina agerian uzten dute babes-egitura hura jardunean egon zela XIV, XV. eta XVI. mendearen lehen erdialdean, eta badirudi ordutik aurrera ez zirela erabili.

Vedia y Gossensek XIX. mende hasieran gotorleku zaharraz egin zuen deskripzioari jarraiki, egitura haren itxura fisikoak antz handia izango zuen, oro har, gaztelu-etxe klasikoekin, zundaketa arkeologikoetan ikusi ahal izan den bezala (M. J. Torrecilla, 1998). Gaztelu hura hiriaren gaineko haitzalde gorenean eraiki ondoren luzatuko ziren harresiak bi aldeetatik eta, beherantz egin ondoren, bat egingo zuten hirigunearen behealdean. Ikusi ahal izan dugun bezala, harresi haren atal batzuk kontserbatu dira mendebaldeko harresialdean eta dorretxo batzuk izango ziren itxuraz alde haren muturretan. Tamalez, iparraldeko harresiak ez du horrenbesteko zori onik izan eta azken 200 urte honetan desagertu da, mazelaren ezaugarri edafologiko eta topografikoen eraginez (egiturari eusten arazoa handiak dituzten buztinezko zoruak eta eremu patartsua). Honez gainera, babes-egitura hau ez da horren bitxia, antzeko adibideak aurki baititzakegu laburrean modu honetan azal genezakeen eraikuntza-tipologia honen barnean: haitz gaineko gaztelua, dorrea gainean eta harresiak aldeetan, okuopatzen duten muinoa inguratzen dutenak eta, zenabitetan, hirigunera bertara iristen direnak. Hurbilean ditugu Autolko multzoa Errioxan edo Alcoba de Torre eta Jaraykoak Sorian, baina antza handiago dute agian Atienza (Guadalajara), Parcuellos (Cuenca) eta Orejako (Toledo) multzoek. Bestalde, babes-egitura molde hau Europako beste lurralde batzuetan, Frantzian zehazkiro, bideratu zen. Besteak beste, honako kasu hauek aipa ditzagun: Albon, Grand Arnsburg (Baerenthal), Cruseilles, Laz, Puthod (Mijoux), Montmiral edo Kopfel (Ottrot).

glo XIII, en el marco de las desavenencias entre los monarcas castellanos y los señores de Bizkaia (1254-1288), cuando se construya. En cualquier caso, parece indudable que la fortificación tenía ya cuerpo en 1295. Para entender la tardía fecha que atribuimos al castillo hay que tener en cuenta un hecho que hoy resulta difícil de apreciar: Balmaseda no había tenido carácter de villa fronteriza hasta el siglo XIII. Antes había formado parte de diversas tenencias castellanas o navarras, pero nunca se había encontrado en una zona extrema de las mismas. De hecho, posteriormente, cuando ya el Señorío de Bizkaia estaba plenamente integrado en Castilla, el castillo nunca llegó a resultar operativo, y sólo las guerras carlistas impulsaron la recuperación de la fortaleza.

2.° El castillo medieval. Un elemento urbanístico ha determinado su ubicación. De la calle Vieja original, hoy de Martín Mendía, el casco se fue ampliando con nuevas calles paralelas hacia el Noroeste, al abrigo de la ladera. Plantear un orden defensivo para este enclave iba a estar regido por dos aspectos: abrazar el conjunto del casco en expansión y proteger su espalda desde el cerro; es decir, unos condicionantes que impulsaron el trazado de la muralla y la elevación de un castillo, convirtiendo éste en vértice de la línea externa. Las referencias documentales, breves y poco explícitas, ponen de manifiesto su presencia y preeminencia a lo largo de los siglos XIV, XV y primera mitad del XVI, cayendo al parecer en desuso a partir de esta fecha.

En cuando a su aspecto físico, analizando la descripción que de la antigua fortaleza hiciera Vedia y Goosens a principios del XIX, sus caracteres formales y dimensiones lo emparentan, a grandes rasgos, con un elemento similar al de las clásicas casas-fuertes, como se ha constatado en los sondeos arqueológicos (M.J. Torrecilla, 1998). Desde este elemento, sobre el afloramiento de roca más elevado y dominando la población, se tendieron las murallas, que bajaban a unirse por ambos flancos con el recinto inferior del casco urbano. Tramos de esta muralla se conservan, como hemos comprobado, en el lienzo de poniente, jalonado al parecer por sencillos torreones. Lamentablemente, hemos de concluir que el amurallamiento septentrional ha corrido peor suerte, desapareciendo con seguridad en los últimos 200 años por causa de las condiciones edafológicas y topográficas de la ladera -suelos arcillosos de escasa sujeción y acusada pendiente-. Además, no se trata de un modelo extraño, pues podemos hallar paralelismos dentro de lo que puede ser una tipología definida brevemente como de castillos roqueros formados por torreón en alto y cortinas, que encierran el cerro en que se asientan, prolongándose, en ocasiones, hacia el núcleo de población. Entre los más cercanos podríamos citar los de Autol en La Rioja o Alcoba de Torre y Jaray de Soria, pero incluso el parecido se aproxima más en casos como los de Atienza (Guadalajara), Paracuellos (Cuenca) y Oreja (Toledo). Fórmula defensiva que, por otro lado, también se encuentra en Europa, y concretamente en Francia en ejemplares como los de Albon, Grand Arnsbourg (Baerenthal), Cruseilles, L'az, Puthod (Mijoux), Montmiral o Kopfel (Ottrot), por citar algunos de los que incluiríamos en dicha categoría.

3.- Aro Modernoa: abandonuaren garaia. Euskal Herriaren garai hartako egoeraren arabera, bere hiri txiki eta herrietatik urrun geratu ziren defentsa-beharrak. Balmasedako hiribilduak bere harresi-egiturari eutsi zion bere ahalak eta, bereziki, zergak hobekiago fiskalizatu ahal izateko. Egoera haren erakusgarri garbiena ditugu ateak, emendatuz joan baitzen haien kopurua hurrengo mendeetan, XVI. mende bukaeratik aurrera. XVIII. mende bukaeratik aurrera, eta XIX. mende osoan zehar, hirigunea handitu ahalean gaindituko ziren harresiak eta ateak. Honez gainera, El Castillo XVII. eta XVIII. mendeetan gaztelua ez da dagoeneko gotorleku bat, baizik eta baserri baten bizkaraldeko lur eta muinoaren izen soila. Gerrak eta guduak eszenatoki honetatik kanpo dauden honetan, txakolina egiten jarri dira alde honetan. Frantsesen inbasioaren garaian ere ez zuen lehengo protagonismoa jaso, garai hartan babes-egiturak plaza eta udaletxe inguruan antolatu baitziren.

4.- Gerra karlistak eta gotorleku modernoa. Garai honetakoak dira egun gainaldeko esparruan ageri diren egituren %90. Hasieran bideratu ziren egokitzapen eta erabileren ondoren (harresi zaharra bera ere erabili zuten bi aldeetan), tamaina handiko obrak egin zituzten 1835-1836 bitartean, gaztelua gotorleku moderno bihurtzeko. Kontserbatu diren egiturek salatzen digutenez, Balmasedak mendi-gotorleku itxurako eraikina izan zuen, haren egitura irregularra zen, topografiaren gorabeherengatik, eta esparru gotortu bat izan zuen gainaldean goardirako, baluarte parapetodun batez babesturik. Beste baluarte txikiago bat izan zuen behealdean, Hegoalderantz muturtua, harresialde luzeena eta, aldi berean, ahulena babestearren, baina ez ziren hartan benetako babesaldeak eratu. Iturri idatzietan aipatzen den zubi altxagarria ekialdean egongo zen, seguruenik, bigarren baluartearen eta lehenengoaren arteko foso idorraen gainean. Arranpala baten bidez egingo zen gainaldeko eta behealdeko esparruen arteko komunikazioa; horren seinale genuke A murruaren Hego-ekialdeko angeluan atzeman den desbideratze txikia.

Gotorleku honen bizitza laburra izan zen eta gerra karlista amaitu zenean eraitsi zuten neurri handi batean. Badirudi berriro erabili zutela bigarren geral karlistan, baina estrategia modura, benetako defentsa plaza eta udaletxearen inguruetan antolatu baitzen. 1876tik aurrera betikoz utzi zen gaztelua, hirigunean zirauten harresi-atalak galtzen hasi ziren eta muinoraino luzatzen zirenak betikoz hondatu ziren, erabat galtzeraino, Iparraldean gertatu zen bezala.

## *IV. Balmasedako Gazteluko Kultura Parkerako Plan Bereziaren aurreproiektua*

Lanean zehar, agerian utzi dira Gazteluko muinoaren eta haren inguruaren kultura balioak, honako aspektu hauek bereziki:

- Gazteluko Erdi Aroko egituren kontserbazio-egoera zehaztu da eta etorkizuneko azterketen arabera ezagutu ahal izango dugu haren eraikuntza-oina, kontuan harturik Bizkaian oso gutxi direla molde horretakoak.

